

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak erabilera anitzeko lokalak utzi dizkie hiriko hiru elkarteri, Udal Artxibo berriaren ondoan

Egiako Auzo Elkarreak, Xabier Mendizale Elkarreak eta Trebeska Kultur Elkarreak lokal berriak izango dituzte Blas de Otero plazaren azpian

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu dituen beste gai batzuk: Amara Berri Loiola patioa, Errotulazioa euskaraz, Martutene gasolindegiko etxebizitzak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du hiru lokal modu pribatiboan erabiltzeko administrazio emakida ematea, Egiako Auzo Elkarteari, Xabier Mendizale Elkarteari eta Trebeska Kultur Elkarteari zuzenean esleituz.

394,27 m²-ko lokala da, Udal Artxiboaren obrarekin batera eraikia Atotxako Dorrearen, Mandasko Dukearen Pasealekuko 36-46 eraikinen eta Mandasko Dukearen Pasealekuaren arteko espazio libreen artean sestraperan dagoen lokalaren zati batean (garai bateko ibilgailu biltegia).

Erabilera anitzeko gunek honako eremu hauek ditu: 41,65 m²-ko bulegoa, bi lanpostu eta bilera gela batekin, **Egiako Auzo Elkarrearentzat**; 94,55 m²-ko eskalada aretoa eta 4,80 m²-ko biltegia, **Xabier Mendizale Elkarrearentzat**; 150,96 m²-ko dantza aretoa, 3,20 metroko altuera librea duena eta intsonorizatua dagoena, eta 4,80 m²-ko biltegia, **Trebeska Kultur Elkarrearentzat**.

Lokalek honako espazio komun hauek partekatzen dituzte: sarbide komuna eta hall-a; jarduera eremuaren zirkulazio espazioa, 49,25 m²-koa; eta bainugela eta aldageletarako 46,15 m²-ko espazioa, dutxa eta komun egokituak dituena.

Amara Berri Loiola patioa

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Amara Berri Loiola ikastetxeko estalkia konpontzeko eta patioa berrantolatzeko proiektua, 598.527 euroko aurrekontua duena.

Amara-Berri Loiola ikastetxea Loiolako Ariztigaña kaleko 15. zenbakian dago, hiru solairu dituen eraikinean: erdisotoa, beheko solairua eta lehenengo solairua.

Gainera, eraikinak kanpoko hiru espazio ditu, aire zabalean. Horietako bat eraikinak berak babesten du, eta barrutik sartzeko bertara. Barruko atondo moduko bat izango litzateke, eta jolas-eremua izango litzateke. Bigarrena lorategia izango litzateke, edo eraikinaren albo bateko berdegunea, non partzela aldapan jaisten den. Eta hirugarrena, eraikina inguratzen duen lursaila da, lurzatiaren sarreran azalera handiagoa duena (patio nagusia).

Prensa oharra

Nota de prensa



Proiektuaren arabera, eraikinaren estalkia berrituko da, sarrerako patioa berrantolatuko da eta Haurreskola aldera sartzeko pasabide bat sortuko da.

Errotulazioa euskaraz

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ditu hiriko establezimenduetako kanpo errotuluak zein barruko errotuluak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik 10.000 euroko dirulaguntzak banatzeko oinarriak.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak bere egiteko eta helburuen barne hartzen du Donostiako gizarte arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzeko tresna izatea. Hori dela eta, helburu estrategikoetako bat da euskararen erabilera areagotzea arlo sozioekonomikoan, zehazki merkataritza eta ostalaritza esparruan.

Euskara Zerbitzuak urteetan eskaini ditu dirulaguntzak establezimenduetako kanpo errotulazioa euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko, hiriko merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzu-jardueren sektorean euskararen erabilera indartzeko helburuz. Era berean, ildo horri jarraituz, eta hizkuntza paisaia euskalduntzeko nahian, establezimenduen barruko hizkuntza paisaia aldatzeko dirulaguntzak ere eskainiko dira, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik.

Martutene gasolindegiko etxebizitzak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Martutene eremuari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketari behin-behineko onarpena ematea.

Dokumentuaren funtsezko edukia da gasolina-zerbitzugunea zegoen industria-erabilerako lurren kalifikazioa bizitegitara aldatzea. Ondorioz, eraikuntza irekiko bizitegi bloke bat eraikiko da, 14 etxebizitzarekin.

Behin betiko onarpenerako dokumentu bat prestatuko da, bertan txostenetan jasotako baldintzak betez eta txosten hauetan planteatutako gaiak jaso beharko dira ere.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 25a